

25

KANTA EDER

(Jan-edanak)

LABAYRU IKASTEGIA

BILBAO

2008

© Labayru Ikastegia
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 944 437 684 - Fax: 944 437 758
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Marrazkiak: Juan José Galdos

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: Baster, S.L.L.

Lege Gordailua: BI-3519-08
ISBN: 978-84-86833-89-3

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROrekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Aurkibidea

| | |
|------------------------------------|----|
| Berbaurrekoa | 7 |
| A, a, a, ardo gorri naparra | 9 |
| Ai, Mari Migel | 11 |
| Aiko, Joaniko | 12 |
| Anton bat eta Anton bi | 13 |
| Ardoa eta gizona | 14 |
| Ardoa | 15 |
| Atzo, atzo, atzo | 17 |
| Bazkaldurikan bapo-bapo | 18 |
| Bizkaiko bazter baten | 19 |
| Donostiako hiru damatxo | 22 |
| Errukarria | 24 |
| Ez da filosoforik | 25 |
| Glu, glu, glu (Biba Rioxa) | 26 |
| Gure koadrilan | 27 |
| Iragan besta biharamunian | 28 |
| Irungo maio | 31 |
| Mahatsaren orpotik dator | 33 |
| Mari Anton | 34 |
| Maritxu, Maritxu | 35 |
| Mendekoste festetan | 37 |
| Pipa hartuta | 39 |
| Potajiarena (Egunaren izena) | 40 |
| Sagardoari | 42 |
| Txakolin (Jai egunez) | 44 |
| Zeanuritik baraurik | 46 |
| Iturriak | 47 |

Berbaurrekoa

Ahozko herri-ondarearen altxorretako bat dira abestiak, belaunaldiz belaunaldi transmitidutakoak, ahoz adierazo, belarriz ikasi eta buruz jasoten diranak. Sasoi baten, ohitura zan artazuriketetan, ipuinak eta kontuak konteteaz gainera, kantetea, baina ez orduan bakarrik, baita lagunarte, ospakizun, festa, bazkari-oste eta abarretan be.

Bilduma hau gai baten inguruko kantarik ezagunenak batu eta jentearen eskura ipinteko asmoz hasi genduan eta bide horretan aurrera eginaz, honako ale hau dakargu; jan-edanaren gaineko 25 kantako liburutxua. Abesti batzuk janaren ingurukoak dira, besteak edanaren gainekoak (ez bakarrik ardoari jagokozanak, baita sagardo, txakolin edo bestelakoei jagokezanak be) eta biak jasoten dituenak be badagoz.

Kantearen letreagaz batera partiturea dator abestu gura dauenarentzat lagungarri izan daiten. Egilea ezaguna danean, ipini egin da eta besteak herrikoiak dira.

Euskaldunok beti euki izan dogu jatun on eta kantari hobe izatearen ospea. Halan, koadrilan batu eta bazkalostean askotan kantau egiten da eta horretarako lagungarri izan liteke, hatan be, esku artean dozun liburua.

Halan ba, jai giroan hartu eta abestuz gozatu eizuz honeek abestiok.

Gorane Intxaurrega
Labayru Ikastegikoa

A, a, a ardo gorri naparra

Ardoaren alde

A, a, a, ardo gorri naparra,
elikadura ona da,
edan ahal baldin bada.

A, a, a, ardo gorri naparra.

A, a, a, ardo gorri naparra,
eztarriko lakarra,
kentzen hau den azkarra.

A, a, a, ardo gorri naparra.

A, a, a, hau den ardo bikaina!
Edan zagon nahi aina
nahiz argitu bekaina.

A, a, a, hau den ardo bikaina.

E, e, e, ni ardoaren alde,
edan ardura gabe,
baldin bada debalde.

E, e, e, ni ardoaren alde.

E, e, e, ni ardoaren alde,
goiz eta arratsalde,
beti naiz haren galde.

E, e, e, ni ardoaren alde.

I, i, i, ardoak gaitu bizi,
noiztik behin ongi busti,
edan gabe ez utzi.

I, i, i, ardoak gaitu bizi.

I, i, i, hi haut nire edari,
hik jartzen nauk kantari,
ta sarritan dantzari.

I, i, i, hi haut nire edari.

O, o, o, hau biontzako dago,
edan dezagun oro,
zuk orain ta nik gero.

O, o, o, hau biontzako dago.

O, o, o, honek jartzen nau bero,
eta sarritan ero,
edanaz egunero.

O, o, o, honek jartzen nau bero.

U, u, u, ardoak gaitu galdu,
gehiegi edan dugu
lurra iragi digu.

U, u, u, ardoak gaitu galdu.

U, u, u, hau den gure erregu:
ardoa behar dugu
nahiz uda ta nahiz negu,

U, u, u, hau den gure erregu.

Ardoaren kontra

A, a, a, kontuz busti zintzurra,
jo nahi ez baduk lurra,
ta hautsi lepa-hezurra.

A, a, a, kontuz busti zintzurra.

A, a, a, mahatsaren ur sorgina,
gizonak edan grina,
ta andreak mitina.

A, a, a, mahatsaren ur sorgina.

E, e, e, edari etxe kalte,
nasaikerien ate,
tabernetan alkate.

E, e, e, edari etxe kalte.

I, i, i, mahatsaren zumu azti,
grina txarren ilati,
osasanaren pipi.

I, i, i, mahatsaren zumu azti.

O, o, o, edari demonio,
inpernuko jario,
pardel danen bizio.


O, o, o, edari demonio.

U, u, u, ur gorrizko olatu,
horrek hau hi hondatu,
ta andreaz hasarratu.
U, u, u, ur gorrizko olatu.

U, u, u, ardo madarikatu!
Gautxorien teilatu,
alper denen ostatu.
U, u, u, ardo madarikatu!

A, a, a, ar-do go- rri na- pa - rra, e - li - ka - du-ra o-na da, e - dan

7
ahal bal - din ba - da A, a, a, ar - do go - rri - na - pa - rra.



Ai, Mari Migel

Ai, Mari Migel,
non don alkondarie?
Ai, Mari Migel,
non dona katue?

*Zapi ta zapi esanagaitik
ez dona kentzen katue.
Sekula bere ez dot ikusi
honela neure burue!*

Ai, Mari Migel,
non don senargai hori?
Ai, Mari Migel,
noiz don eztegue.

*Zapi ta zapi esanagaitik
ez dona kentzen katue.
Sekula bere ez dot ikusi
honela neure burue!*

Ai, Mari Migel,
katu hori kentzeko.
Ai, Mari Migel,
ken ein zaragie.

Asto handiok, niri zirika
zetan agertzen zarie?
Itzungi al da, hordi alperron
lantegiko sutegie?
Ai, Mari Migel!

Ai, Ma-ri Mi - gel, non don al-kon - da - ri - e? Ai, Ma-ri Mi - gel, non
do - na ka - tu - e? Za-pi ta za-pi e-sa-na - gai-tik ez do-na ken-tzen ka - tu - e. Se-ku-la
be-re ez dot i - ku-si ho-ne-la neu-re bu - ru - e! Ai, Ma-ri Mi - gel!

Aiko, Joaniko

—Aiko, Joaniko Olabarriko
zer daukak aparitako? (bis)

—Orio-aza gozo-gozoa
arto beroaz jateko. (bis)

Rai ta rai lara la ra la ra la lai.

Kaspel handian intxaur saltsea,
pitxar morkoan txunpletin, (bis)
eragin eta beti eragin,
zaharrok badaukek zeregin. (bis)
Rai ta rai lara la ra la ra la lai.

Ai - ko, Joa - ni - ko O - la - ba - rri - ko, zer dau - kak a - pa - ri - ta - ko?

O - ri - o a - za go - zo go - zo a ar - to be - ro - az ja - te - ko.

Rai ta rai la - ra la - ra la - ra la - lai

Anton bat eta Anton bi

Anton bat eta Anton bi,
Anton putzura erori,
edan zituen pitxar bi,
ez zan orduan egarri.
Bonbolon bat eta bonbolon bi,
eragiok Santi arraun horri.

The musical score is written on three staves in treble clef with a key signature of three sharps (F#, C#, G#) and a 6/8 time signature. The melody is simple and rhythmic, with lyrics written below the notes. The first staff contains the first line of the song, the second staff contains the second line, and the third staff contains the third line. The lyrics are: "An - ton bat e - ta An - ton bi, An - ton pu - tzu - ra e - ro - ri, e - dan zi - tu - en pi - txar bi, ez zan or - du - an e - ga - rri. Bon - bo - lon bat e - ta bon - bo - lon bi, c - ra - gi - ok San - ti a - rraun ho - rri." The score ends with a double bar line.

An - ton bat e - ta An - ton bi, An - ton pu - tzu - ra e - ro - ri, e - dan
6
zi - tu - en pi - txar bi, ez zan or - du - an e - ga - rri. Bon - bo - lon bat e - ta bon - bo - lon
11
bi, c - ra - gi - ok San - ti a - rraun ho - rri.



Ardoa eta gizona

Ardoa eta gizona dijoaz kantatzera.
Ardan-andere gizona entzule dutela,
gizonak galdetzen dio: —Ona ote zera?
—Bonbilean nago eta hasi zaiz edatera.

Ardoak erantzuten du pozak zoraturik:
—Ez da nigana etorri zeu bezalakorik,
bahituta izan naute kortxoaz estalirik;
zuk askatu nazu eta ez utzi tantorik.

—Ardoa, klin-klin-klin, zatoz bonbiletik pozez,
puxkaz nahiago zaitut, ez guztia kolpez;
usaiz ona zera ta hobea kolorez;
ahoaan muxtatzeke barruratu zaitez.

Ahoan sartu ezkerro banuen esperantza,
eztarria dezulako elkorra ta latza,
ondotxo har nazazu, gozatu al baneza;
negarra heldutakoan, hori dezu poza!

Ar - do - a e - ta gi - zo - na di - jo - az kan - ta - tze -

5 ra. _____ Ar - dan an - de - re gi - ze - na en - tzu - le du - te -

9 la, _____ gi - zo - nak gal - de - tzen di - o: O - na - o - te - ze -

13 ra? Bon - bi - le - an na - go e - ta ha - si zaiz e - da - te - ra.

Ardoa

Ni naiz txit gauza gozoa
eta pozkida osoa,
beltza naiz eta zuria,
iluna eta argia,
indarra det ta garboa
eta izena det ardoa.

Noe gizon aditua
zedorren pentsamentua
izan zan gauza handia
ipintzen mahastia,
zu zaitugu ardoaren autore.
O! Zorioneko Noe.

Edari maitagarria,
tristearen gai irria,
dezu alaitzen begia,
eta kentzen nahigabea
mutuba ipintzen kantari
eta motela dantzari.

Hausi, atera, ebakia,
mina dala, edo zauria
sendatzeko belarra
klareta ta nafarra
moskatela edo malaga
edozein ardo ona bada.

Pasatzen du aste osoan
aitzurtzen batek soroan
nekaturikan guztia
dariola izerdia
laister legoke hau galdurik
ez balu jaiean ardorik.

Jateko ez bada gogorik
eta ezin egin lorik
eritasun hoben
edo beste edozeinen
sendatzeko balsamoa
da mahats onaren zumoa.


Ardo gabe ez da jalerik,
ez mezarik eta ez festarik,
bada hau faltatu ezkerok
ez da aurkitzen gero
baizik nahigabeko tristura
iluntasuna eta malurra.

Galenoren medezinak
ta farmazia guztiak
du botikik onena
ardoaren taberna,
“Todo lo sana” guztia
ardo ona daukan zahagia.


Barbero, mediku guztiak
erremedio haundiak
dituzte besterentzat,
baina bada berentzat
piztutzeko ahal dan lehena
ardo zaharrik dan onena.

Ardoa edanez neurritz
behin hila pizten du berriz
baina bada hasitzen
belaunak limuritzen
eta irakiten buruan,
ez da gauza onik orduan.


Aita Meagher




 Ni naiz txit gau - za go - zo - a e - ta poz - ki - da o - so -



 a, bel - tza naiz ta zu - ri - a, i - lu - na ta ar - gi - a, in - da - rra naiz ta



 gar - bo - a e - ta i - ze - na det ar - do - a.



Atzo, atzo, atzo

Atzo, atzo, atzo,
atzo hil ziran hamar atso;
baldin ardoa merkatzen ez bada,
hilko dirala beste asko.
Atzo, atzo, atzo,
atzo hil ziran hamar atso.

A - tzo, a - tzo, a - tzo, a - tzo hil zi - ran ha - mar a - tso; bal - din

6 ar - do - a mer - ka - tzen ez ba - da, hil - ko di - ra - la bes - te as - ko. A - tzo, a - tzo, a -

10 tzo, a - tzo hil zi - ran ha - mar a - tso.



Bazkaldurikan bapo-bapo

Bazkaldurikan bapo-bapo
goazen bai plazara,
hantxen egingo degu
gogotik algara. (bis)

Oraindikan, mutilak
tragotxo bat bota,
bota, bota beste bat,
oraindikan bota.

Bazkaldurikan bapo-bapo...

Tragoarekin zaigu,
barrena pixkortu,
ez zan gizon makala
hau zuena sortu.

Bazkaldurikan bapo-bapo...

Oraindikan, neskatzak
tragotxo bat bota,
bota, bota beste bat,
oraindikan bota.

Bazkaldurikan bapo-bapo...

Oraindikan, mutilak
tragotxo bat bota,
bota, bota beste bat,
oraindikan bota.

The musical score is written on three staves in a 2/4 time signature with a key signature of two flats (B-flat and E-flat). The lyrics are written below the notes. The first staff contains the first line of the song. The second staff starts at measure 7 and includes a repeat sign. The third staff starts at measure 13. The lyrics are: Baz- kal- du - ri - kan ba - po - ba-po ___ goa-zen bai-pla-za - ra, ___ han-txen c-gin-go de-gu ___ go-go-tik al - ga - ra. O - rain-di - kan, mu - ti-lak, ___ tra - go-txo bat bo - ta, ___ bo - ta, bo-ta, bes - te bat, ___ o - rain-di - kan bo - ta.

Bizkaiko bazter baten

Bizkaiko bazter baten
Anboto partian
gizon bi bizi ziran
baserri batian
goizian sartzen ziran
tabernako atian
ez eben alde egiten
bihamon artian.

Gizon biok zirian
Peru eta Anton
euren aldi guztian
biziak Anboton
biak euki ezker
edaria bon-bon
atsuari esateutsen:
—Hua ta banaton.

Biak egin ei eben,
seguru, juntia
mozkorra hartu barik
etxera ez juatia
erretiratu arte
herriko jentia
etxera duanari
kentzeko multia.

Peruk dirautso Antoni:
—Ateraik pipia
asunbra t'erdirekin
bete joa(g)u tripia
gainera edan jaigun
aguardientia
neuri beti gustau jat
edari fuertia.

Atsuai gorde jeusat
ule kopetia
kostako jakok orain
bera topetia

saldu ta edan jaigun
aguardientia
burumotz dabilela
atso tronpetia.

Txapela eskuan ta
pipia mosuan
biderik topau ezinda
dabiltzaz auzuan
estropezetan dira
bigarren pausuan
begi biez aurrera
sartzeira¹ pozuau.

Biak han ebilzala
berbaz alkarrekin
ezin aitu eioen
euskel ala latin
bator asto bategaz
Errotako Martin
harek atera zituan
bere eskuakin.

Orain badator lagun
Praisku errotaria
gizon errazoizkua
ta edale garbia
ikusi ebanian Peru
burua hain argia
kalbugaitik uste eban
zala irargia.

Peruk dirautso Antoni
zer dozu Antontxu?
Kakatzartian majo
ein dogu koipatzu
bost aldiz deskansuten
hartu dogu pentzu
jarri zaitte orduan
ta hartu eizu deskantsu.

¹ Sartzen dira.

Hurrengo dirautso: —Zer
zu Anton Kurtzulu
kurtzulia izan da
ilun eiten dozu?
Hasten dira esaten
Anton eta Praisku:
—zure buru kalbuak
argi eingo deusku.

—Kurtzulu; ipinijok
argiai metxia
bestela ezingo zuk
bilatu etxia
neure korta burdia
balitzok kotxia
haintxe ebaliko neukek
neure atso motxia.

Etxian euki arren
sarri morokila
honek ipinten jeuskuk
estamangu hila
guazen tabernara
hobiaren bila
atsua umiakaz
tximurtu daitela.

Artua zopan eta
txoletian ura
etxuat² hatx onduan
holan bizi gura
lebatz edo ternera
lukainka musturra
honekaz egoten nok
tabernan gustura.

Tabernerai dirautse:
—Entzun ein, patrona,
apari txar bi baino
hoba jeun bat ona
ezer bajaun biontzat
ekarrina hona
dirurik ez bajeukun
emongunau bona.

Arratsalde erdian
jarri ziran mahaian
euren estamanguak
betarte larrian
juan ziran etxera
ia gaberdian
gomuta asko barik
euren famelian.

Haren andra tristiak
bildurrez ikara
Anamai Erroteta
ta Malen Partikara
halan bere agurok
bazeuken bizarra
atsuei hausteko
buruan pitxarra.

Hamazazpi bertso honen
horra despedida
Kurtzuluren kantuak
akabatu dira.
Atsuak agurakaz
hasarre badira
alkarrenak dira ta
konponduko dira.


Panchillon

² Ez joat.

Biz - kai-ko baz - ter ba - ten An - bo - to par - ti - an — gi - zon bi bi - zi

6
zi - ran ba - se - rri ba - ti - an goi - zi - an sar - tzen zi - ran ta -

11
ber - na - ko a - ti - an — ez e - ben al - de e - gi - ten bi - ha - mon ar - ti - an.



Donostiako hiru damatxo

Donostiako hiru damatxo
Erreterian dendari. (bis)
Josten ere badakite baina
ardoa edaten hobeki.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
ardoa edaten hobeki.*

Donostiako Gaztelupeko
sagardoaren gozoa, (bis)
hantxen edaten ari nintzala
hautsi zitzaidan basoa.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
basoa kristalezkoa.*

Donostiako hiru damatxo
hirurak gona gorriak, (bis)
sartutzen dira tabernara ta
irtetzen dira hordiak.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
irtetzen dira hordiak.*

Donostiako hiru damatxok
egin omen dute apustu, (bis)
zeinek ardo gehiago edanda,
zein gutxiago mozkortu.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
zein gutxiago mozkortu.*

Donostiako hiru damatxo
Erreteriko kalean, (bis)
egunez oso triste ibili,
baina dantzatu gauean.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
baina dantzatu gauean.*

Donostiako neskatxatxoak
kalera nahi dutenean: (bis)
—Ama, piperrik ez dago eta
banoa salto batean.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
banoa salto batean.*

Donostiako neskatxatxoak
mandatuena aitzakian, (bis)
mutilarekin egoten dira
kalean jolaskerian.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
pozez algara haundian.*

Donostiarrak ekarri dute
Getariatik akerra, (bis)
kanpandorrean ipini dute
Aita Santutzat dutela.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
Aita Santutzat dutela.*

Donostiako arrantzaleak
dira txit gizon bapoak. (bis)
Gaztelupeko sagardoakin
egiten ongi tragoak.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin
maiz bustirikan ahoak.*

Arrosatxoak bost hosto ditu
krabelintxoak hamabi. (bis)
Mari Joxepa nahi duen horrek
eska bezaio amari.
*Eta kriskitin, kraskitin,
arrosa krabelin,
eska bezaio amari.*

1.

Do-nos - ti - a - ko hi - ru da - ma-txo E-rren - te - ri - an den - da - ri. Do-nos


6

2.

ri Jos-ten e - re ba-da - ki - te bai-na ar-do - a e - da-ten ho - be - ki. E-ta kris-ki-tin,

11

kras - ki-tin, a - rro-sa kra - be-lin, ar-do - a e - da-ten ho - be - ki.



Errukarria

Aspaldian ez da gure etxean
ogirik ikusi;
baina gaur txitxi ta parra
izango da aski.

*Gaur bai jana ta edana,
labirun lena,
jango ote degu dena,
labirun la. Ju! (bis)*

Oso arlote bizi gera,
ezin osaturik;
zenbat aldiz eguerdian
oraindik baraurik.

Gaur bai jana ta edana,...

Marto opilak egiteko,
arto egiteko,
aitak atzo saldu zuen
anega bat arto.

Gaur bai jana ta edana,...

Talo esnea jateko gu
gaude zaleturik;
sei talo jango nituzke
neronek bakarrik.

Gaur bai jana ta edana,...

Gure sabelak eske daude
hau da miseria!
Erdi gosez dagoena
da errukarria.

Gaur bai jana ta edana,...

Pitxarra ere guretzako
izango da noski,
gure barrena alai
jarriko da aurki.

Gaur bai jana ta edana,...

Jose M^a Iparragirre

As - pal - dian ez da gu - re e - txe - an o - gi - rik i - ku - si; bai - na gaur txi - txi ta
7 pa - rra i - zan - go da as - ki. Gaur bai ja - na ta e - da - na
13 la - bi - run le - na jan - go o - te de - gu da - na la - bi - run la. Gaur bai ja - na ta e - da - na
19 la - bi - run le - na jan - go o - te de - gu de - na la - bi - run la. Ju!

Ez da filosoforik

Ez da filosoforik,
ez teologorik,
ardoari neurria
hartuko dionik.
Gizon haundiak ere
ikusi ditut nik,
beren mozkorra ezin
disimulaturik.

Gizon bat ardo gabe
dago erdi hila.
Barbar dabilta tripak
ardoaren bila.
Baina edanez gero
ardo ona ta ongi,
gizonik kaskarrenak
balio ditu bi.

Londresen ta Parisen,
Erroman ta Goan,
ardoaren usaina
daukate gogoan.
Ardoak kentzen digu
bihotzeko mina.
Berriz edaterako
eman dit zotina.

The musical score is written in a single system with three staves. The key signature is two flats (B-flat and E-flat), and the time signature is 3/4. The melody is written in a treble clef. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables that span across multiple notes. The score is divided into three measures by bar lines, with measure numbers 6, 12, and 18 indicated at the beginning of each line.

Ez da fi-lo-so - fo - rik, ez te-o-lo-go - rik, — ar - do-a-ri neu-
6 rri - a har-tu-ko di-o - nik. Gi-zon haun-di-ak e - re i - ku-si di - tut
12 nik, — be - ren moz-ko - rra e - zin di - si - mu - la - tu - rik.

Glu, glu, glu (Biba Rioxa)

Biba Rioxa, biba Naparra,
arkume onaren iztarra,
hemen guztiok anaiak gera
hustu dezagun pitxarra.

*Glu glu glu glu
glu glu glu glu
glu glu glu glu glu
glu glu glu glu
glu glu glu glu glu
glu glu glu glu glu*

Ardo fina ta jateko ona
jartzen badute gaur ugari,
gure barrenak berdindurikan
jarriko dira guri-guri.

Glu glu glu...

Gure sabela bete behar da
ahal bada gauza onarekin,
dagon lekutik eragin bapo!
Aupa, mutilak, gogoz ekin!

Glu glu glu...

Ez ikaratu dagon artean,
jan eta edan gaur gogotik,
hustutzen bada ekarko degu
berriro lehengoko tokitik.

Glu glu glu...

Umorea da gauzik onena,
nahigabeak ditu ahaztutzen.
Uju ta aja hasi gaitean
euskal doinuak kantatutzen.

Glu glu glu...

Jose M^a Iparragirre

The image shows a musical score for the song 'Glu, glu, glu (Biba Rioxa)'. It consists of four staves of music in G major (one sharp) and 3/4 time. The lyrics are written below the notes. The first staff starts with 'Bi - ba Ri - o - xa, bi - ba Na - pa - rra, ar - ku - me o - na - ren iz - ta -'. The second staff continues with 'rra, he - men guz - ti - ok a - nai - ak ge - ra, hus - tu de - za - gun'. The third staff begins with 'pi - txa - rra. Glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu'. The fourth staff continues with 'glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu glu'. The score ends with a double bar line.

Gure koadrilan

Gure koadrilan,
gure koadrilan,
gure koadrilan mozkorra franko
eta gainera soltero,
eta gainera,
eta gainera ezkontzerikan
ez du inork espero,
ez orain ta ez gero.

Hau duk zorioneko
ezkondu beharra,
ezkondu baino lehenago,
biziko naiz mutil zaharra.

Gu-re koa-dri-lan, gu-re koa-dri-lan, gu-re koa-dri-lan mozkorra fran-ko e-ta gai-
ne-ra sol-te-ro. E-ta gai-ne-ra, e-ta gai-ne-ra e-ta gai-ne-ra ez-kon-tze-ri-kan ez du
i-nork es-pe-ro, ez o-rain ta ez ge-ro Hau duk zo-ri-o-ne-ko
ez-kon-du be-ha-rra, ez-kon-du bai-no lehe-na-go bi-zi-ko naiz mu-til zaha-rra.

Iragan besta biharamunian

Iragan besta biharamunian,
berek dakiten xoko batian,
lau andre, hirur mutxurdin, bat alarguna, jarriak itzalian,
harri xabal bat belauenen gainian
ari ziren, ari ziren trukian.

Zer ote duten nik jakin nahi,
pitzarrarekin bertze jaun hori;
zorroa du biribila, moko mehea, tente xutik egoiki,
xahako bat ote den nago ni
hanpatua, hanpatua ederki.

Jes! Nik oraino zer dut ikusten?
Zer hegalpean dute gordetzen?
Egoitza goxo hortarik, burua alto, xahakoaz trufatzen,
bihotzez azkarrago zeren den,
kuiattoa, kuiattoa ari zen.

Handik ximiko, hemendik irri,
haurrak bezala jostetan ari;
gogotik ematen dute begi kolpe bat hegalpean denari;
hitz bat erran gogo diote sarri
beharrirat, beharrirat kuiari.

Seira truk dira zazpietarik,
tanzoz oro bat bi aldetarik.
Xahakoa eroria da, mokoz ipurdi, naski odol husturik;
kuiattoa han dago etzanik,
azken hatsa, azken hatsa emanik.

Gezurrik gabe goazen, Maria;
eman jokoan ezti-eztia;
hurbil zan untzi beltz hori, dezagun edan trago bat edo bia,
bihotza dinat epeltzen hasia,
harek zuen, harek zuen grazia.

Zahagiaren seme joria,
nun duk axtiko zorro lodia?
Gaizoa, lehen birundan zurgatu dautek odolaren erdia!
Orai hor hago zimurrik arpegia,
kokoriko, kokoriko jarria.

Nahiz zeraukan azken eskua,
Mariak zuen hasi gudua:
—Truk. —Jozan. —Mariak xango, Katixak xaldun, Marixumek, hirua.
Mari-Martin, xoratu zain burua,
lauarekin hiruaren keinua!

—Hago, Maria, otoi, ixilik,
ez dun ikusi nere keinurik.
Xorta bat edanez geroz, begiak ñirñir; zer ez dun ahalkerik?
Edan nezaken azkarren hortarik,
Gatilua, gatilua beterik.

Bazakinagu, tresna makurra,
ez dunala hik hatsa laburra.
Ez dun, ez, dionan bezala, horma xurgatuz biribildu muturra,
ez eta ere gorritu sudurra,
milikatuz, milikatuz elurra.

Apo mutxurdin moko bipila,
zeren ondoan ote habila?
Hatz badun gibel aldean, ikusiko dun zenbat naizen abila;
xuhur badun, hago, neska xirtxila,
ixil, ixil, ixil, ixil, ixila.

Kartak utzirik, eta tantoak,
han zituzten han gero saltoak.
Bakarrik hiruen kontra, zer eginen du Mari-Martin gaixoak?
Nahiz izan azkar zango besoak,
hartu ditu, hartu ditu paloak.

Herriko besta arrats apalian
lau gatu zahar anjelusian,
bat maingu, hirur saltoka, sorginak pujes! zohatzila bidian.
Nik ikusi ditut amets batian,
akelarre, akelarre gainian.


Jean Baptiste Elissanburu

I - ra - gan bes - ta bi - ha - ra - mu - ni - an, be - rek da - ki - ten txo - ko

7
ba - ti - an, lau an - dre, hi - rur mu - txur - din, bat a -

13
lar - gu - na, ja - rri - ak i - tza - li - an, ha - rri xa - bal bat be - lau - nen

19
gai - ni - an, a - ri - zi - ren, a - ri - zi - ren tru - ki - an.



Irungo maio

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Bi tortoilo, erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Lau antzara, hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Bost pirilo, lau antzara, hiru oilo,
bi tortoilo, erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Sei zikiro, bost pirilo, lau antzara,
hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Zazpi zezen, sei zikiro, bost pirilo,
lau antzara, hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Zortzi idi, zazpi zezen, sei zikiro,
bost pirilo, lau antzara, hiru oilo,
bi tortoilo, erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Bederatzi basurde, zortzi idi,
zazpi zezen, sei zikiro, bost pirilo,
lau antzara, hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Hamar karga sardin berri,
bederatzi basurde, zortzi idi,
zazpi zezen, sei zikiro, bost pirilo,
lau antzara, hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Hamaika karga erre-kafe,
hamar karga sardin berri,
bederatzi basurde, zortzi idi,
zazpi zezen, sei zikiro, bost pirilo,
lau antzara, hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*

*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!
Hamabi karga puro erre,
hamaika karga erre-kafe,
hamar karga sardin berri,
bederatzi basurde, zortzi idi,
zazpi zezen, sei zikiro, bost pirilo,
lau antzara, hiru oilo, bi tortoilo,
erretiluan eper bat.*


*Irungo maio,
a zer afaria geniken bart!*

I - run - go ma - io, a zer a - fa - ri - a ge - ni - ken bart! E - rre - ti - lu - an e - per bat.

I - run - go ma - io, a zer a - fa - ri - a ge - ni - ken bart! Bi tor - toi - lo, e - rre - ti - lu - an e - per bat.

bat. I - run - go ma - io, a zer a - fa - ri - a ge - ni - ken bart! Hi - ru - oi - lo, bi tor -

toi - lo, e - rre - ti - lu - an e - per bat. I - run - go ma - io, a zer a - fa - ri - a ge - ni - ken bart!



Mahatsaren orpotik dator

Mahatsaren orpotik dator
mama goxua, mama goxua
edango neukela
beterik basua.
Klink! Beterik basua.
Nik zuri, zuk niri,
agur eginez alkarri,
basua txit garbi
beharko da ipini.

Maha - tsa-ren or-po-tik da - tor ma-ma go-xu - a. ma-ma go-xu - a e - dan - go neu-
ke - la be-te-rik ba-su - a. Klink! Be-te-rik ba-su - a. Nik zu - ri, zuk ni - ri,
a - gur e - gi - naz al - ka - rri, ba - su - a txit gar - bi be - har - ko da i - pi - ni.

The musical score is written on three staves in G major (one sharp) and 2/4 time. The melody is simple and folk-like, with triplets and some chords. The lyrics are written below the notes.



Mari Anton

Mari Anton Katxalena,
txakurrak jan haue
erdia zoro izanda
ondo egin dabe.

—Ez ni, bai ni,
aste guzti guztiko,
atrulon liru lon
liru liru lena.

Mari Anton Katxalena,
bagoaz tabernara
makailau zati bategaz
zerbait edatera?

—Ez ni, bai ni,...

Ma-ri An-ton Ka-txa-le-na, txa - ku-rrak jan hau - e, er-di - a zo-ro i-
zan-da on - do e-gin da - be. Ez ni, bai ni, as - te guz - ti
guz - ti - ko, a - tru-lon li - ru-lon li - ru li - ru le - na. ___

Maritxu, Maritxu

*Maritxu, Maritxu, goxozale zera zu;
Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu.*

Goizean goizean txokolatea
arratsalde erdian koipatsu,
ama ta ahizparentzat porrusalda ta
zerorrek edaritzat juju.

*Maritxu, Maritxu, goxozale zera zu,
Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu.*

Txori batek kantatzen du
haritz adar gainean
bera ez dala ezkonduko
aurtengo udazkenean,
arto, gari, zekaleak
merke ez diran artean.


*Maritxu, Maritxu, goxo zale zera zu
Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu.*

Gabean bigiran eta
biharamonean lozurru,
ama ta ahizpatxoak etxe-lanetan
izerdi patsetan aiduru.

*Maritxu, Maritxu, goxo zalezera zu
Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu.*

Gau ilunez hontza dabil
teilaturik teilatu,
bigiretan zeratenon
gezur-egiak batu
ta lagunai banatzea
ez dezakela asmatu.

*Maritxu, Maritxu, goxo zale zera zu,
Maritxu, Maritxu, bizitzen badakizu.*



Ma - ri - txu, Ma - ri - txu, go - xo - za - le ze - ra zu; Ma - ri - txu, Ma - ri -

7



txu, bi - zi - tzen ba-da - ki - zu. Goi-ze-an, goi-ze-an txo-ko-la - te - a a - rra-tsal-

13




de er-di-an koi-pa - tsu, a - ma ta ahiz - pa-ren-tzat po-rru-sal - da ta ze-ro-rrek e - da-ri-tzat ju - ju. Ma-ri-

19




txu, Ma - ri - txu, go - xo - za - le ze - ra zu; Ma - ri - txu, Ma - ri - txu, bi - zi -

25



tzen ba-da - ki - zu. Txo - ri ba - tek kan - ta - tzen du ha - ritz a - dar gai - ne -

31



an be-ra ez da - la ez - kon - du - ko aur - ten - go u - daz-ke - ne - an, ar - to, ga - ri, ze - ka -

37



le - ak mer - ke ez di - ran-ar - te - an. Ma - ri - txu, Ma - ri - txu, go - xo - za - le ze - ra -

43



zu; Ma - ri - txu, Ma - ri - txu, bi - zi - tzen ba - da - ki - zu.

Mendekoste festetan

Mendekoste festetan,
aurten Arneik errekan, (bis)
ixtorio bat gertatu da kasik ezpeitiot erran:
bost emaztek edan dituzte hamalaur pint'arno betan
jokaturik kartetan.

Jokua zuten florian
Arneiko Madrilenian; (bis)
atso gaixoek uste zuten zirela zeruko lorian,
saindu ororen erdian, bere botoilak aldian,
bai eta plazer handian.

Batek zion bertziari:
—Haurra, hire graziari; (bis)
arnoño hunek alegrantzen ditan bihotzñua niri,
ene plazerra hola luken banu zonbeit ogi poxi
arno ezti huneki.

Katrina eta Kattalin,
auzo biak elgarrekin, (bis)
arno edaten ari ziren kuraia handi batekin;
gero ondoan bazuten gibel aldian zer egin,
bere fanfarreriekin.

Hirugarrenak ederki
tanteatzen omen daki; (bis)
hamarrekuak harek zituen omen markatzen orori,
ondarrekotz nahasi zen eta lurrerat erori;
orduan etzen egarri.

Laurgarren hori zer peza,
Maria zapatainesa; (bis)
untsa esplikatzen zituen eskuara eta frantsesa,
bai eta ere aisa egiten bide handian esa;
horixe da haren letra.

Bostgarren hori zoin ote da?
Pentsatzeko ez da pena; (bis)
Garaxane gaizo horrek nola ezpaituke lehena;
—Benedika dakiola —dio— mahatsari aihena
arno ekartzen duena!

Ahuntzez jokatu eta
 hasi ziren kolpeka; (bis)
 Gaston deitzen zen guarda gazte bat, kanpotik jinik lasterka,
 hak partitu izan zituen, ez uste bezain aisa,
 arrazoinik ezin pasa.

Zuk ere, etxek'andera,
 erran beharzu egia; (bis)
 solas hortan zu ote zinen horien buruzagia?
 Bost emaztek egiteko horixe da komedia!
 Hurran baitzen zahagia!

Men - de - kos - te fcs - te - tan, aur - ten Ar - neik e - rre - kan, ix - to - ri -

o bat ger - ta - tu da ka - sik ez - pei - ti - ot e - rran: bost e - maz - tek e - dan di -

tuz - te ha - ma - laur pint' ar - no be - tan jo - ka - tu - rik kar - te - tan.

Pipa hartuta

Pipa hartuta zorutzen naiz,
ardoa edanda mozkortzen naiz,
kortejatzean lotsatzen naiz,
nola demontre biziko naiz?
Tralarala laralaralarala.
Tralarala laralaralarala. (bis)

Bazter guztiak inguruka,
bideak ere inarroska.
Munduak zer du? Hau da hinka!
Goazen etxera andarkoka.
Tralarala laralaralarala.
Tralarala laralaralarala. (bis)

Hamar botila txankraturik,
azken basoa klikaturik,
azken txirrista irentsirik,
poltsa deraukat tturrindurik.
Tralarala laralaralarala.
Tralarala laralaralarala. (bis)

Mutiko gazte ta leiala,
kontseju onak har zaitzala:
otoi bizian, ez zaitzela
sekulan mozkor ni bezala.
Tralarala laralaralarala.
Tralarala laralaralarala. (bis)

Urrundu zaizkit aiskideak,
eta hurbildu ostalerak.
Etxean aldiz emazteak
prest-prestak ditu erausiak.
Tralarala laralaralarala.
Tralarala laralaralarala. (bis)

Pi - pa har - tu - ta zo - ra - tzen naiz, ar - do - a e - dan - da moz - kor - tzen naiz,
9 kor - te - ja - tze - an lo - tsa - tzen naiz, no - la de - mon - tre bi - zi - ko naiz?
17 Tra - la - ra - la la - ra - la - ra - la - ra - la. Tra - la - ra - la la - ra - la - ra - la - ra - la.

Potajiarena (Egunaren izena)

Egunaren izena
ez dakit nola zan,
bainan seinalagarri
partidu bat bazan,
pelotan jokatzeko
Oiartzungo plazan.
Nahi det nere orduko
gertaera esan,
hurrengoan beste bat
eskarmenta dezan. (bis)

Partidua jokatzez
bukatu zanean,
ostatura joan nintzan
zuzen-zuzenean.
Mahaiera jana ekartzen
hasi ziranean,
apaiz bat zerbitzen zan
aurren-aurrenean.
Makina bat sartu zan
haren barrenean. (bis)

Zintzur ona zuela
klaro seinaleak
eman zituen apaiz
barbantzuzaleak.
Dozenaka tragatzen
zituen aleak,
maskatu ere gabe
tripazain jaleak,
halako aisa nola
antxoia baleak. (bis)

Tragatutzen zituen
ihar ta hezeak,
ez ziran haren dina
zetozen klaseak.
Ekarri orduko zeuzkan
tripara paseak
kortesia gabeko
txapela luzeak.
Harek nahikoa jan ta
ni berriz goseak. (bis)

Nire ditxa guztiak
badute aja,
noski naiz Jaungoikoak
ahaztutzat lajea.
Goseak egin nuen
hango biajea.
Kulpa duenarentzat
daukat korajea,
apaiz batek jan zuen
nere potajea. (bis)

Geroztik ostatuan
sartu ordurako,
galdea egin gabe
ez det nik lajako:
egun hartan apaizik
ote dan harako.
Ez apaiz jaun guztiak
igual diralako,
baizik batek bildurra
sartu zidalako. (bis)

Indalezio Bizkarrondo, "Bilintx"

E - gu - na - ren i - ze - na ez__ da - kit no - la zan, _____

9
bai - na sei - na - la - ga - rri par - ti - du bat ba - zan, _____

17
pe - lo - tan jo - ka - tze - ko _____ Oi - ar - tzun - go pla - zan, _____

25
Nahi det ne - re - or - du - ko ger - ta - c - ra c - san, _____

33
hu - rren - go an bes - te bat es - kar - men - ta de - zan, _____

41
hu - rren - go - an bes - te bat es - kar - men - ta de - zan, _____



Sagardoari

Bedeinkatua izan dedila
sagardoaren grazia
bai eta ere kupira gabe
edaten duen guzia;
edari honek gizon askori
ematen dio bizia,
hau edan gabe egotia da
neretzat penitentzia.

Lehenengo sartu tabernan eta
ateratzen naiz azkena,
egun guzian zurrutian da
ez zait betetzen barrena;
hau da edari maitagarri bat
arras piztutzen nauena,
Joxepa Karmen bihotzekoa
bete hamabigarrena.

Gosea ez det handia baina
egarria bai ugari,
nere barrenak maitasunikan
ez dio berriz urari:
sortzen ditudan koarto pitxarrak
ematen dizkat tripari,
nere denboran bizia kentzen
diot zenbait sagardoari.

Gaitzik ez duen edari honi
gogoz ohi diot nik ekin,
satisfazioz ez naiz arkitzen
pitxar bat eta birekin;
hiru edo lau izaten ditut
arratserako nerekin
tristura eta penak sendatzen
ditut sagardoarekin.

Astelehena det jai bat hartua
pekatu mortalekotzat,
asteartean beharrerako
gogorik egiten ez zat;
asteazkena, ai nere pena,
oso pereza sartzen zat,
modu honetan aste guzia
alperkerian joaten zat.

Bart arratsean egin det amets
lehen egin izan dedana,
tabernatikan irten naizela
txispatu edo edana;
pausorik xuxen egin ezinda
esaten nuen: Hau lana,
golpatu gabe ezin nintke juan
gaur ni andrearengana.

Kupelan dagoan sagardoak dit
ematen tentazioa,
prezisamente edan beharra
daukat persekuzioa;
mila deabruz josirikako
orain duen prezioa,
zaleak asko geran medioz
dauka estimazioa.


Edanago ta berriz nahiago
beti nago egarriak,
begi bitarte txarrikan ez dit
egiten tabernariak;
hemeretzi lehen, hau hogeigarren,
hamar atzo zor utziak,
markak kupelan egin jaiean
pagatutzeko guziak.

Be - dein - ka - tu - a i - zan de - di - la sa - gar - do - a - ren gra - zi - a bai

9 e - ta e - re ku - pi - ra ga - be e - da - ten du - en guz - ti - a; _____ e -

17 da - ri ho - nek gi - zon as - ko - ri e - ma - ten di - o bi - zi - a, hau e - dan ga -

25 be e - goi - ti - a da ne - re - tzat pe - ni - ten - tzi - a. _____



Txakolin (jai egunez)

Jai-egunez txakolinez
barrua bete ezkeru,
abarkadun auzo-lagun
guztiok gagoz bero.

*Txakolin, txakolin, txakolin eta txuzpin;
txakolin, txakolin, txakolinak on egin.*

Mahats-urina pitxar bina
edanarren zutunik,
batzuk motel-motelik;
irradari, zantzolari
ager gara zororik.

*Txakolin, txakolin, txakolin eta txuzpin;
txakolin, txakolin, txakolinak on egin.*

Bi ailara kurtzetara
lurrean irarrita,
ikotika, artazika,
irradan bat hasten da.

*Txakolin, txakolin, txakolin eta txuzpin;
txakolin, txakolin, txakolinak on egin.*

Batzuk uju, bestek juju
berein agura han dira
bekaitzaren begira
bizkor ta azkar lehena bakar
dabil jira ta bira.

Jai e - gu - nez txa - ko - li - nez ba - rru - a be - te ez - ke - ro, a - bar - ka - dun au - zo - la - gun

8
guz - ti - ok ga - goz be - ro. Txa - ko - lin, txa - ko - lin, txa - ko - lin e - ta - txuz - pin;

15
txa - ko - lin, txa - ko - lin, txa - ko - li - nak on e - gin. Ma - hats u - ri - na pi - txar bi -

22
na e - dan a - rren zu - tu - nik, ba - tzuk - mo - tel mo - te - lik;

29
i - rra - da - ri, zan - tzo - la - ri a - ger - ga - ra zo - ro - rik. Txa - ko - lin,

36
txa - ko - lin, txa - ko - lin e - ta txuz - pin; txa - ko - lin, txa - ko - lin, txa - ko - li - nak on - e - gin.



Zeanuritik baraurik

Zeanuritik baraurik urteten badozu,
Gorbaiera orduko damutuko jatzu.
Damutuko jatzu ta damutuko jatzu
Zeanuritik baraurik urtetzen badozu.


Eleuterioren txabolan
gosea franko izango da
baita bere egarrie dalako gizon baragarrie.
Eleuterio, Eleuterio
Eleuterio, Eleuterioren txabolan.

Botea haxeagaz bakarrik beteta badaroazu,
Igiriñauko iturrien egarrie kenduko zu.
Egarrie kenduko zu ta egarrie kenduko zu
botea haxeagaz bakarrik beteta badaroazu.

Eleuterioren txabolan...

Arrautza prijiduteko gogoa badaroazu,
hatx kontra apurtu eta gordinik jan behakozu.
Gordinik jan behakozu ta gordinik jan behakozu
arrautza prijiduteko gogoa badaroazu.

Eleuterioren txabolan...



Zea - nu - ri - tik ba - rau - rik ur - te - ten ba - do - zu, Gor - bai - e - ra or -
du - ko da - mu - tu - ko ja - tzu. Da - mu - tu - ko ja - tzu ta da - mu - tu - ko ja -
tzu Zea - nu - ri - tik ba - rau - rik ur - te - ten ba - do - zu. E - leu - te - rio - ren txa - bo - lan go - se -
a fran - ko i - zan - go da bai - ta be - re e - ga - rri - e da - la - ko gi - zon - ba - ra - ga - rri - e.

Iturriak

- Akapela*. Hiriburu: Uhaina; Donostia: Elkarlanean, 1999.
- ANSORENA, Jose Ignazio. *Euskal kantak*. Donostia: Erein, 2000.
- ARANA BAREÑO, Ander [et al.]. *Iparragirre*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1987.
- ARAZAMENA, Jesús M^a DE; GARBIZU, Tomás. *Viejas canciones donostiarras. Donostiko kantu zarrak*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 1971.
- ASTIGARRAGA, Asier (ed.). *Gure kantuak*. Bilbao: Laybaru Ikastegia, 1998.
- AZKUE, Resurrección M^a de. *Cancionero popular vasco*. Bilbao: Euskaltzaindia, 1990.
- . *Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco*. Bilbao: Euskaltzaindia; Madrid: Espasa Calpe, 1989.
- DIÁZ DE ZERIO LAJAIMA, María Rosa. *Euskal kanta zahar batzuk eskolarako*. Pamplona-Iruña: Nafarroako Gobernua, Euskara Zerbitzua, 2003.
- DONADO URIGOITIA, Emilio J. *Otxandio, Oleta, Gatzaga, Legutio eta Ubideko euskal herri-kantak. Canciones populares vascas de Otxandio, Olaeta, Gatzaga, Legutio y Ubidea*. Otxandio: Fundación Andresa Landa Axpe, 2003.
- ETCHEMENDY, Paul; LAFITTE, Pierre. *Kantuz: recueil de 120 chansons populaires basques*. Donostia: Elkarlanean, 2000.
- ETNIKER EUSKALERRIA. *La alimentación doméstica en Vasconia*. Bilbao: Etniker Euskalerrria; Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1999 (2. arg.).
- Euskal kantutegia*. Euskomedia Fundazioa, Cultura vasca on-line [linean]. <<http://www.euskomedia.org/cancionero?idi=eu>>
- LEKUONA, Manuel. *Idaz-lan guztiak*. Tolosa: Librería Técnica de Difusión, 1978.
- OSKORRI. *Vizcayatik ... Bizkaiara*. [CD]. Donostia: Elkarlanean, 2001.
- Pinpirin eta florian*. Bilbao: Labayru Ikastegia; Euskal Herriko Ikastolen Elkarte, 2000.
- ZABALA, Antonio. *Indalecio Bizkarrondo, Bilintx*. San Sebastián: Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 1978.
- ZANTZUE KULTUR ELKARTEA (biltz.). *Euskal kanta zahar eta barriak*. Bermeo: Bermeoko Udala, Kultura Saila, 2003.

